

KOSTUEN EGITURA

Lehenik eta behin, gure negozioa aurrera atera dadin, kostuak murrizten saiatuko gara. Hau da, "low cost"-a erabiliaz saiatuko gara gure produktuei ahalik eta prezio baxuenak jartzen, betiere etekina ateratzen dugula bermatuz. Honekin, gure kontsumitzaileak ziurtatuko genituzke. Horrela, bere iraupena baietsiko genuke, arropa berriak erosi beharrean, gure luxuzko arropen alokairuan kontsumituz, ez lukete soilik prezio berdinean prenda bakarria izango, baizik eta prenda berriak balio duena alokairuan beste hainbat gauzetan erabil dezakete. Orokorrean, luxuzko arropa erostea ez da hain errentagarria ateratzen, oso gutxitan jartzen delako, horregatik, alokatuz gero, behin baino gehiagotan jarri nahi bada, nahi izanez gero aloka dezakete nahi aina produktu hori.

Beste aldetik, kostu aldakorrak direla eta, garraioa prezio aldakorra izan daiteke, gure enpresa erabiltzen duen jende kantitate arabera izango da. Gure garraioa hasieran alokatua izango litzateke, denborak aurrera egiten duen ahala, furgoneta bat erosiko genuke dirua lortzen badugu, errentagarriagoa atera dadin. Soldatarekin ere gauza bera gertatzen da, geroz eta erabilera handiago ematen bazaio edo geroz eta jende gehiagok kontsumitzen badu, langile gehiago edo gutxiago kontratatu beharko genituzke edo langileek diru gehiago edo gutxiago jasoko lukete.

Ez hori bakarrik, lokalari dagokioenez, prezioak ez dira gure esku egongo, hau da, lokala alokatu egingo dugunez, jabearen arabera aldatuko dira prezioak. Alokairua berdina ordaindu beharko bagenu, gure prezioak finkoak izango direla esan genezakegu. Baina, ordea, alokairua jabearen arabera eta denboraren poderioz prezioak igo ala jetsiko balira, aldakorra izango da alokairuan ordaindu beharko genuena. Horregatik, gure alokairuaren prezioak aldakorrak izan daitezke.

Amaitzeko, azpimarratzekoa da produktuak tenporadaren arabera izango direla jakinaraztea, izan ere, ez da berdina izango neguko edota udarako arroparen balioa. Batez ere, neguko arropak garestiagoak izaten diren horretan, gure alokairua erabiltzerakoan ere diferentzia hori nabarmena izango da, bestela gure negozioak izango lukeelako galera. Baina arropa prenda bakoitzak seguruaski prezio finko bat izango du, baina tenporada ez bada aldakorra ere izan daiteke.